

b i s i t a

ITZIAR UGARTE IRIZAR

E
l
k
a
r
r

l r a k u r r i z



BOOKTEGI





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

ITZIAR UGARTE IRIZAR
bisita

Bakardadean ez da topatzen hara eraman dena baizik.

Juan Ramon Jimenez

**E
l
k
a
r
r
I r a k u r r i z**

Lanarekin goraino nagoela esan diot orain arte, baina agian beldurra ere izan da, ez dakit zehazten zeri. Udazkenarekin heldu naiz azkenean, eta aspaldiko ondoen lo egin izan banu bezala atera naiz lehen orduan, kalean oraindik behe-lainoa altxatu gabe zegoela. Kantu bat ere bidali diot Anderri —Nobody Really Cares If You Don't Go To The Party—, eta gelditu gabe gidatu dut ia hiru orduz. Adosatu ilara batzuen artera eraman nau jarritako helbideak, aparkatu, eta idatzi diot. Hemen naiz. Gutxira entzun dut Enara! kalearen behealdetik, eta han agertu da buruan toalla horixka bat turbante eran lotzen.

Ongi etorri, ederrori, estutu nau krema eman berritako besoen artean.

Orain ni bizi naizen etxean eduki zuen Balerdiren lamina ezagutu dut sofa gainean, eta lur hartzen lagundu dit. Gainontzean deigarriegia egin zait dekorazioa izebaren bizitokia izateko—lore sorta jaurtitzen duen Banksyren irudia horman—. Azkar erakutsi dit guztia: lehen solairuan, sukalde-egongela, atzealdera ateratzen den terrazatxo bat txiki bat eta guzti, komuna, trasteleku txiki bat eta bere logela, horma kontran jarritako 90eko ohearekin. Goian, solairu guztia hartzen duen gela, 1,30eko ohea eta komun propioa barne.

Hauxe zuretzat. Ilea lehortu eta berehala naiz.

Astebeteko epean hartu zuen erabakia. Nik Bilbotik ateratzeko baino gogo gehiago zeukan berak aitaren gaixoa guztia blaitu zuen etxetik alde egiteko. Denbora egin zuen zerbaiten bila, harik eta, goizetik gauera, Kantabrian berarentzako moduko etxe bat atera zela abisatu zion arte suhiak —etxe-agentzia batean egiten du lan—. Biztanle gutxiko herri bat nahi zuen, zarata gutxi inguruan, alabarengandik gehiegi ez aldentzea baina bai harentzat zama ez izateko bezain urruti izatea. Hemen inguruan ikusten ez diren alokairu prezioa du antza. Gelditu zaidan pentsioarekin lasai sartzeko modukoa, laburtu zidan. Duina edo, ñabardura gero. Korok —bere betiko laguna— etxea dauka inguruko beste herrixka batean. Pentsatzen dut horregatik ere hartu zuela hain azkar erabakia. Nerea —bere alaba—, Iker —suhia— eta laurok aritu ginen asteburu oso batez gauzak biltzen. Oroitzen dut etxe berrian kamera bat jartzearen ideia komentatu ziola Nereak, aparte samar zegoela etxebizitza auzoa, eta nola itzuli zion faborez esanez bezala begirada amak.

Horrek otso gehiago erakarriko dizkit.

Ez izan tuntuna, orain aprobetxatu zuk, esan zidan niri agurtzerakoan.

Urte erdi inguru da, beraz, ni ere bakarrik bizi naizela, aitona-amonena bainoago niretzat izebarena izan den etxean. Ikasle garaietatik kateatzen nindoan pisukideetatik aldentzeko premia neukan nik ere, isiltasunarena. Materialki ezinezkoa zitzaidala zen kontua. Da kontua. Gogoratzen naiz izebarekin horretaz jardun izana bi urte atzera bai behintzat. Etorri nirekin bizitzera, esan zidan. Ez dakit zenbateraino benetan.

Gabonetan etorriko zara?

Ea Nereak zer dioen, baina ez nuke nahi. Adin bat daukat eta asmorik ez egon nahi ez dudaneekin egoteko, Enara. Ahizpa izan arren, zure ama toxikoa da niretzat, gaur esaten duzuen modura. Argi daukat hori. Koro-eta hemen egongo dira, gainera.

Aurrean daukadan emakumea begiratu dut, entzuteari utzi gabe. Bigarren kafe bat jarri du sutan eta duen barne sosegurako gakoa urteak ote diren pentsatu dut. Erabaki zailtatik igaro izana. Hanka sartzera ausartu izana. Bere hitzak gardenak dira orain, azala bezala, gero eta ageriago zain-errekak. Teila koloreko soineko nasai bat darama eta halakoak ditu keinuak ere, egunaren barruan nik baino leku gehiago izango balu bezala.

Hondartzara ibiltzera joatea pentsatu dugu, baina bizilagunaren etxetik igaro behar garela dio aurretik. Katua zaintzeko eskatu dio hiruzpalau egunez. Bakarrik bizi den andre bat da. Diruduna, hitz bakarrarekin deskribatu duenez. Bistan da aldi batzuetan etorri dela jada, bion oinetan igurtzi bila kiribildu baita animalia. Bezperan erdi zabalik utzi zituen leihoak itxi ditu, pertsianen lerroa alturaz aldatu, eta bazkaltzeko erosketak egin ordez, portu inguruan bazkaldu dezakegula erabaki du, bizilagunaren mailak oharkabean kutsatuta akaso. Lehenengoan onartu du nire kontu esan diodanean.

Eta? Zer moduz bakarrik? sakatu dit han, plantxan erretako txipirioien aurrean.

Gehiago irakurtzen dut, hori da onena. Tira, eta norbere erritmora bizi ahal izatea. Une zoragarriak oparitzen ari zait etxea, egia da.

Begitartea zorrotzu du zigarro bat bildu ahala eta inoiz baino txikiago ikusi dizkiot begiak kristal borobilen atzean, hari lila mordoxka bat haietan itsasoratzen. Beti izutu nau nola ikusten ote nauten nireen tankera omen duten begi horiek.

Baina?

Ez, bainarik ez. Ziurgabetasun apur bat, besterik ez. Ez dakit. Behin-behinekotasun jarraikor moduko bat. Alde batetik, inoiz baino hobeto nagoela uste dut, baina burua kalkuluak egiten topatzen dut gero, bizitza lasterketa itxurara eramaten duten tranpetan erortzen eta ez dut beti asmatzen hortik ondo nola irten. Erabaki batzuk hartu gura ditudala diot, baina ez dakit zenbateraino ahal dudan, zenbateraino dudan beharra ere oraintxe.

Barre bat marrazten joan zaio aurpegian eta amorratu egin naiz, nire buruarekin batez ere, hobeto esplikatzeke gauza ez izateagatik.

“Bizitza denbora habitatzea da”.

Hozkailuan jarraitzen du.

Heldua zara, Enara. Badaude bilatzeari uzten ez dioten pertsonak. Horretan agian badugu antz apur bat. Nik beti uste izan dut ezin dela aurrera egin jokatzeko ez bada. Baina horrekin ez dut esan nahi etengabe aldaketan egon behar denik; bakarrik heltzen da hori. Eta, noski, dena ez dago gure esku.

Parte handiena da nire esku ez dagoena, ez?

Ukalondoak mahaietan, esku biek eutsi du burua, eta ezpainen artean estutu zigarroa. Bere aurpegi teatralena gustatu zait gehien beti. Gaiak luzerako emango ligukeela ulertu dut eta grazia egin dit ohartzeak ez diola inongo inbidiarik eman nire gaztetasunak.

Heldua zara, Enara. Lehen aldiz esan didate sendotasuna itzuli didan era horretan.

Gertuko herri bat bisitatu dugu iluntzean eta etxean afaltzea erabaki. Hummus tostada bana eta gazta ardoarekin. Izebarekin ia beti da ardoarekin. Kasik ahaztu zait etxean utzi zituen hiruzpalau kaxa ekarri dizkiodala. Liburuz eta aldizkariz beteta daude, eta horiek ordenatzen lagundu diot joan aurreko goizean. Erdiarekin ere ez da geratu.

Gauzak ez dira bakarrik gauzak. Ez dut beste garai bat gehiegi ekarri nahi hona.

Agurtzerakoan niri marraztu zait barrea, nire arrisku dramatikorako aukera besarkada alai eta presarik gabeko batez nola moztu duen konturatu naizenean. Atzerako ispilutik imintzio itzaliago bat sumatu uste izan dut gero, baina litekeena da arrisku dramatikoagatik izatea hori.

Behin Bilbo parera helduta pentsatu dut distantzian sostengatzen dugula elkar hobekien. Berak egiten duela, nik, ez nago hain seguru. Inguru horretan deitu dit Anderrek. Bi berri dituela, ona bata, oso txarra bestea. Ona, lanean kontratua luzatu diotela, otsailera arte oraingoz. Txarra, etxeko jabeak deitu diela, bueltan datozela eta pisua utzi behar dutela. Gabonak arteko epea eman dietela. Gaua haienean egiterik nahi duen galdetu diot. Osorik jaten amaitu gura ez dudan sobatu kaxa bat daramat ondoan.